



KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA, IZOZKIEN, GOZOKIEN, FRESKAGARRIEN ETA EDARI EZ ALKOHOLDUNEN BI (2) SALMENTA-POSTU, TABERNA-TXOSNA BAT (1) ETA BARKILLO ETA ANTZEKOEN SALMENTA-POSTU IBILTARI BAT (1) INSTALATZEKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBORAKO ADJUDIKAZIOA ERAENDUKO DUENA

I.- XEDAPEN OROKORRAK:

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen xedea izozkien, gozokien, freskagarrien eta edari ez alkoholdunen bi (2) salmenta-postu, taberna-txosna bat (1) eta barkillo eta antzekoen salmenta-postu ibiltari bat (1) instalatzeko behar den lurzoruaren erabilera pribatiboa izango da, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako moduan eta baldintzak errespetatuta. Hona hemen salmenta-postu horien kokapena:

▪ **Izozkien, gozokien, freskagarrien eta edari ez alkoholdunen salmenta.**

- I. Izozkien salmenta-postua "Astondo"n, 1. zenbakian.
- II. Izozkien salmenta-postua "Busterri zubia"ren gunean, 3. zenbakian.

*Postu bakoitzak okupatu beharreko gehieneko azalera ezin izango da 5 m²-tik gorakoa izan.

▪ **Taberna-txosna.**

- I. Taberna-txosna "aterpetxea"ren gunean, 2. zenbakian.

*Taberna-txosna bakoitzak okupatu beharreko gehieneko azalera ezin izango da 20 m²-tik gorakoa izan.

▪ **Barkilloen eta antzekoen salmenta ibiltaria.**

- I. Barkilloen eta antzekoen salmenta ibiltaria "Areatza"n, 4. zenbakian.

Kontratu honen bidez ostalaritza zerbitzu bat ematea sustatu nahi da. Horren bidez, topagunea sortuko da, bertan Gorliz udalerriko erabiltzaileen/herritarren beharrianak asetzen laguntzen duten mahaiko jarduerak, solasaldiak eta abar gauzatuko direla.

2.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK.

2.1.- Kontratistak kontratua betearaziko du, Agiri honetan ezarritako klausulei eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak emandako administrazio baimenean (2014ko maiatzaren 5eko ebazpena) ezarritakoari zorrotz helduta, administrazio baldintzen agirian ezarritakoa ere errespetatuta.



2.2.- (Taberna-txosnen emakidaren kasu zehatzean) kontratuaren adjudikaziodunak agiri honetako 1. eranskinean ezarritako ezaugarrien antzekoak dituen taberna-txosna instalatu beharko du. Gorlizko Udaleko Hirigintza Arloa betebeharraren betetze-maila eta, zehatz-mehatz, aipatutako ezaugarrietarako haren egokitasuna zehazteko organo tekniko eskuduna izango da.

2.3.- Kontratuaren betearazpena kontratistaren arrisku eta menturara egingo da, eta Gorlizko Udalak ez du haren finantzaketan parte hartuko eta ez du inolako jesapenik abalatu.

Kontratuaren betetzeko egin beharreko lanen ondorioz berez edo bere mendeko langile edo bitartekoen bidez hirugarrenei egin zaizkien kalte eta galeren ordaina emango beharko du kontratistak. Kalte eta galera horiek Administrazioaren aginduren baten berehalako eta zuzeneko ondorio gisa gertatu badira, Administrazioa izango da horien erantzulea, legeetan adierazitako mugen barruan.

Halaber, adjudikazioduna bai Administrazioarako bai hirugarrenetarako akatsengatik, lanaren urritasun teknikoengatik edo lanak eragin dituen lege edo araudi arauen akats materialengatik, ez-egiteengatik edo arau-hausteengatik kontratuaren betetzearen bitartean sortzen diren kalte-galeren arduraduna izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 305. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontratuaren profesional batek baino gehiagok betetzen badute, guztiek bete beharko dituzte solidarioki klausula honetan aipatutako erantzukizunak.

2.4.- Lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta garbitasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu adjudikaziodunak, bera erantzule bakarra dela. Horretarako, kontratuaren xedea betetzeko beharrezkoak diren langileak izan beharko ditu bere kargura, eta haien enpresaburua izango da, ondorio guztietarako.

2.5.- Adjudikaziodunak ezin izango du kontratuaren betearazpena eten inolako arrazoiengatik, ezta ordainketan atzeratzeagatik ere, lege ezarritako kasuetan izan ezik eta betekizunei helduta.

2.6.- Agiri honetako 1. eranskinean aipatutako azalera gain, adjudikaziodunak alboko espazio libreak okupatu nahi baditu terraza txiki bat instalatzeko eta udal agintaritzak aurretik baimentzen badu, derrigor eta idatziz eskatuko dio Gorlizko Udalari. Idazki horretan haren erabilera, okupatu beharreko azalera, erabili beharreko materialen deskribapena eta materialek terrazan izango duten banaketa adierazi beharko ditu. Ondoren, udal agintaritzak eskaera ebatziko du, eta, hala denean, baimen horren baldintzak, norainokoa, iraupena, ezeztatzeak eta egokitzeak jotzen dituen agindu guztiak adieraziko ditu. Okupatu beharreko azalera adjudikaziodunak aurkeztuko duen plano batean adieraziko da, eta ez da onartuko baimendutako eta dokumentazio grafikoan adierazitako espazioa ez dena okupatzea.

Aurreko guztia eguzki-oihal, karpa eta itzalkinei aplikatuko zaie; horiek eraigarriak eta desmuntagarriak izango dira egunero, eta hori ez betetzeak arau-hauste larria ekarriko du.

2.7.- Taberna-txosnarako, interesdunek instalazioaren ezaugarri teknikoak (materialak, planoak eta abar) buruzko azalpen memoria aurkeztu beharko dute, Baldintza Teknikoen Agirira 1. eranskin gisa gehitutako baldintza teknikoak, gutxienez, betetzen dituenak.



Gorlizko Udalak (Bulego Teknikoa) memoria horren analisi teknikoak gauzatu, eta adostasun edo ukapen akta egingo da, gainerako gutun-azalak ireki baino lehen.

2.8.- Gorlizko hondartzari ziurtagiria eman dion Hondartzaren Q turistikolari buruzko UNE 187001:2008 arauak honako betekizun hauek ezartzen ditu hondartzako establezimenduetarako:

a) Instalazioak eta Ekipamenduak Garbitzeko Plana izatea, honako hauek, gutxienez, barne hartzen dituenak:

- Giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Zerbitzuaren maiztasuna.
- Zerbitzua emateko ordutegiak.
- Garbitzeko ohiturak (garbiketa bat egunean, gutxienez, ahal dela, zerbitzua emateko ordutegitik kanpo eta egoerak eskatzen duen guztietan, garbiketa egoera egokia bermatzeko).
- Hondakin arriskutsuen aurrean jarduteko jarraibideak.
- Erabili beharreko substantzia garbigarri edo produktu kimiko motak.

Behar bezala dokumentatuta dauden garbitzeko ohiturak egon behar dira, honako hauek zehazten dituztenak:

- a) Garbitu beharreko azalerak.
- b) Garbiketaren maiztasuna.
- c) Garbiketaren arduraduna.
- d) Beharrezko garbiketa produktuak.

Egindako garbiketaren erregistroak idatzi behar dira.

- b) Hondakinen gaikako bilketa sistema egokia izatea. Zaramak estalitako ontzietan egon behar dira, eta barruan poltsa izan behar dute, hondakinek eta ontziak elkar ukitzea eragozteko. Zarama-poltsak gune isolatu batean dauden edukiontzietan utzi behar dira, kiratsek beste elikagai batzuei eta erabiltzaileei ez eragiteko.
- c) Herritarrei eskainitako zerbitzuaren prezioak eta funtzionamendu-ordutegia erabiltzaileen begi-bistan jartzea.
- d) Gorlizko Udalak ezarritako adeitasun formulei (ikus 1. ERANSKINA) jarraitzea, eta behar bezala unformatuta eta identifikatuta egotea.
- e) Hondartzako elikagaien eta edarien establezimenduetako langile guztiek elikagaien manipulatuzailearen txartela izan behar dute.
- f) Sukaldeetako (horiek baldin badaude) eta elikagaiak eta horiek ukitzen dituzten gauzak prestatzeko eta kontserbatzeko guneetako instalazioak eta espazioak higiene eta garbitasun egoera onean egon behar dira, berariazko higiene eta segurtasun araudia beteta.
- g) Elikagaiak prestatzen dituzten elikagaien eta edarien establezimenduek kontserbazio ganberak izan behar dituzte, horiek biltegitratzeko. Ganbera horiek kanpoko termometroa izan behar dute, eta haien tenperatuta egunean birritan (behin goizez eta behin arratsaldean), gutxienez, egiaztatuko da, kontrol horren erregistroa idatziko dela.
- h) Elikagaien eta edarien establezimenduek kontrol mikrobiologikoak egin behar dituzte hilean behin, gutxienez, bainualdian, bai produktuei lotutakoa bai lan egiteko azalerei lotutakoa.
- i) Elikagaiak manipulatu dituzten pertsonak honako higiene eta osasun baldintza hauek bete behar dituzte, gutxienez: gorputzaren garbiketa maila handia izatea; ilea garbi, bilduta eta estalita izatea; lanean hasi baino lehen eta jardura aldatuta bakoitzaren ondoren eskuak garbitzea; eraztunik, eskumuturrekorik, eskuko erlojurik eta istripuak sor ditzakeen eta elikagaien hondarrak meta ditzakeen inolako objekturik ez jantzea; laneko arropa garbi izatea; eta elikagaiak prestatzeko gunean ez jatea edo erretzea.



- j) Elikagaien manipulatuzaileek elikagaiak manipulatu eta prestatzeko orduan higiene jardunbide egokiei buruzko eskuliburua izan behar dute, honako jarraibide hauek, gutxienez, barne hartzen dituenak:
- Janarrietan, saltsetan eta abarretan atzamarrak ez sartzea, horiek probatzeko asmoz.
 - Azaleko zauri infekzioso edo kutsakorrek izanda lan ez egitea.
 - Elikagaiak manipulatzeko gunean animaliak eta intsektuak sartzea eragozteak.
 - Erabiltzaileen plateretako elikagaien hondarrak edukiontzietan uztea.
 - Prestatu diren, zerbitzatu ez diren (saltzak izan ezik) eta hotz-katea apurtu ez duten elikagaien soberakinak bakarrik berrerabiltzea.
 - Erabilera bakarreko trapuak baino ez erabiltzea.
- k) Erabiltzaileei arreta eskaintzea, hurrengo adetasun formulak kontuan hartuta:
- Zerbitzua ematen den bitartean, adeitsua, atsegina eta begirunetsua izatea.
 - Ahots-tonu lasaia eta atsegina, ez ozena ez isila, erabiltzea, lasai eta presarik gabe hitz eginda.
 - Jarrera eta portaera zuzenak eta begirunetsuak agertzea, txiklea ez jatea, erabiltzaileen eta/edo herritarren aurrean ez jatea edo erretzea, arduragabekeriarik ez agertzea eta kopeta ez iluntzea.
 - Gehiegizko konfiantza edo harrokeria ez agertzea, erabiltzaileen eta/edo herritarren intimitatea babesteko behar bezalako errespetua erakutsita.
 - Zuhurra izatea, erabiltzaileei eta/edo herritarrei iruzkin iraingarriak egin gabe eta arazo pertsonalen berri eman gabe.
 - Behar bezalako adetasunez jokatzeko erabiltzaile neurrigabe edo problematikoen aurrean, giroa lasaitu nahian eta proposatutako arazoaren aldeko interesa agertuta.
 - Erabiltzaileek eta/edo herritarrek aurkeztutako kexen eta/edo erreklamazioen aurrean begirunetsu agertzea uneoro.
 - Erabiltzaileen eta/edo herritarren adinak edo itxurak ez diete langileei eragin behar, ezta kexen eta/edo erreklamazioen aurkezpenak ere, uneoro tratu adeitsua eskainita eta bezeroak aurretik juzgatu gabe.
 - Ez dira erabiltzaileak eta/edo herritarrak alde batera utzi behar, ezta mespretxuz edo antipatiaz tratatu ere.
 - Ez da oihu egin behar, lankide bat, erabiltzaileak eta/edo herritarrak deitzeko.
 - Ez dira erabiltzaileak eta/edo herritarrak alde batera utzi behar, beste pertsona batzuei arreta eskaintzeko, aurretik barkamena eskatu gabe.
 - Gehien erabiltzen diren eta beti ahotan egon beharko diren bi formulak honako hauek dira: mesedez eta eskerrik asko. Halaber, askotan erabiliko da honako hitz hau: barkatu.
 - Erabiltzaile bati arreta eskaintzean, ez ahaztu "Egun on", "Arratsalde on" edo "Gabon" esanez agurtzea.

2.9.- Adjudikaziodunak ezin izango du kontratuaren betearazpena eten inolako arrazoengatik, ezta ordainketan atzeratzeagatik ere, lege ezarritako kasuetan izan ezik eta betekizunei helduta.

*Egokitzat jotzen duen guztietan, Gorrizko Udalak honako hauek egin ahalko ditu: ikuskapenak egin, zerbitzu teknikoek gauzatuko dituztenak; indarreko araudiaren arabera, derrigorrezko dokumentazioa aurkezteko eskatu; eta adjudikaziodunari ustiapenak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko agindu.



Adjudikaziodunak edo haren zerbitzuko langileek udal ikuskapenei aurka egin edo horiek oztopatzen badituzte, jarrera horrek arau-hauste oso larria ekarriko du.

2.10.- Honako hauek izango dira adjudikaziodunaren eskubideak:

a) Jarduera emakidan adierazi bezala gauzatzea, Baldintza Agirietan ezarritako arauari eta aplikatu beharreko gainerako lege arauari helduta.

b) Salgaien prezioak jasotzea.

c) Interes publikoko arrazoiak direla eta, Udalak emakida baliogabetzeko eskumena erabiltzen badu, adjudikaziodunak amortizatu gabeko ondasunen kostuaren baliokidea den kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du.

2.11.- Adjudikaziodunak postua eskuratu eta instalatu beharko du, eta, halaber, berak instalatzeko eta aldi baterako eta behin betiko kentzeko gastuak zein mantentze gastuak ordainduko ditu.

Izokinen postuak honako ezaugarri hauek izango ditu:

- Ezin izango du 5 m²-tik gorako neurririk izan.
- Hori instalatzeko, ezin izango da inolako albaitaritza obrarik egin: autosostengagarria eta autonomia izan beharko da, baita desmuntagarria ere, hura lekualdatu behar denerako. Halaber, instalazioaren egonkortasuna eta segurtasuna bermatzen dituen dokumentazio teknikoa izan beharko du.

* Nolanahi ere, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak emandako administrazio baimena (2014ko maiatzaren 5eko ebazpena) bete beharko du.

Taberna-txosna Udalak adierazitako ereduari (ikusi 1. eranskina) lotu beharko zaio, eta honako ezaugarri hauek izango ditu:

- Ezin izango du 20 m²-tik gorako neurririk izan.

* Nolanahi ere, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak emandako administrazio baimena (2014ko maiatzaren 5eko ebazpena) bete beharko du.

3.- EPEAK BETETZEA.

Adjudikaziodunak kontratuaren egikaritze-epea eta kanona ordaintzeko epeak bete behar ditu, agiri honetan aurreikusitako baldintzetan. Kontratistak berandutza gauzatu arren, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aurretiaz eskaerarik egitea.

4.- KONTRATUAREN XEDEA OKER EDO PARTZIALKI BETETZEA

4.1.- Baldin eta adjudikaziodunak kontratuaren xedea oker bete badu edo kontratua betetzeko bere eskaintzan jasotako baliabide pertsonal edo material nahikoak jartzeko edo atxikitzeko konpromisoa ez badu bete, kontratazio-organoak bi aukera hauek izango ditu: kontratua suntsiarazi eta jarritako bermea konfiskatzea edo betebeharra ez betetzeak duen



larritasunaren heineko zigor ekonomikoa jartzea, gehienez ere, kontratuaren aurrekontuaren 100eko 10ekoa.

4.2.- Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, horrek kontratuan zehaztutako zerbitzuak zati batean bete ez dituenean, kontratazio-organoak hori suntsiaraztea erabaki ahalko du.

5.- KONTRATUA BETETZEA.

5.1.- Kontratastak kontratua bete duela adieraziko da, baldin eta kontratuaren xede guztia bete badu, agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian ezarritakoarekin bat, eta Administrazioa ados agertu bada. Administrazioak bere adostasuna berariaz azaldu beharko du, kontratuaren xedea bete eta hilabeteko epean.

5.2.- Zerbitzuak ez badaude onartzeko moduan, egoera hori berariaz azalduko da eta kontratastari bidezko jarraibideak emango zaizkio, antzemandako akatsak zuzentzeko eta hitzartutakoaren arabera berriz betetzeko. Hala ere, egindako lanak ez badira kontratatutako zerbitzura egokitzen, kontratastari egotz dakizkiokeen akats eta hutsen ondorioz, Administrazioak baztertu egin ahalko du. Kasu horretan, ordaintzeko betebeharra salbuetsita geratuko da, eta, hala badagokio, ordura arte ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du Administrazioak.

5.3.- Arau-haustetzat joko da adjudikaziodunak egindako edozein ekintza edo ez-egite, Baldintzen Agirian eta Agindu Teknikoen Agirian ezarritako betebeharrak eta oro har aplikatu beharreko gainerako arauak urratzea dakarrena.

5.3.1.- Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, dauden zirkunstantzien eta ustiapenaren funtzionamenduari eragiten zaion kalte handiagoaren ala txikiagoaren arabera.

5.3.2.- Zehapen ekonomikoa ordaintzeko ezarritako epea igarotzen bada adjudikaziodunak hori ordaindu gabe, Gorrizko Udalak premiamendu-bidean kobratuko du hori, baita dagokion erreargua ere.

5.3.3.- Zehapen guztiak espedientea bideratu ondoren ezarriko dira, eta, ebazpena eman baino lehen, entzunaldia emango zaio interesdunari hamar eguneko epean, jarduketak ikusita.



TABERNA-TXOSNA MOTAKO INSTALAZIOAREN FITXA TEKNIKOA

Txostenaren beheko solairuko gehieneko okupazioa ezin izango da 20 m²-tik gorakoa izan, eta agiri honi erantsitako planoan adierazitakoa izango da.

Txosna inguruan integratu beharko da arkitekturaren aldetik, eraikuntza-teknika iraunkorren bidez garatutako eraikuntzak saihestuta eta ingurumenaren aldetik tolerantia izateko duen izaera bultzatuta.

Agiri hau Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi du, 2014ko maiatzaren 9an egindako bileran.